


Ermua eta Mallabiko organuak: maisulan bi (I)

**KORUAN ETA ERDI EZKUTUAN
DAGOZALA, SARRITXAN AINTZAKOTZAT
BE EZ DIRA HARTZEN. BENETAN
DIÑOTSUET: GURE PARROKIXETAKO
ORGANUAK HARRI BITXI BI DIRA.
BAKOITZAREN ISTORIXIAREN NUNDIK
NORAKUEN HARIXARI TIRAKA HASI ETA
USTE BAIÑO LUZIAUA SUERTATU DA.
BI ATALETAN BANATU BIHAR IZAN
DITXURAZ IRAKURRI ETA
ENTZUNDAKO DANAK.**



Euren barri emoteko, zein egokixaua Emilio Pradera baiño, bixetan organista legez diharduana? Zapatu goiza. Emiliokin geratuta neuan Ermuko Eliz barrenian, hangiak eñ eta Mallabira juateko gero. Giltza jirau eta sakristixara zuzendu gintzaen, organua ixotzera. Organuori koruan egonda, zertan juan sakristixara? Ez neban ezer aitzen, baiña ixilik ni. Entxufe arrunt bati klank! e-mon eta listo, martxan euan, harek ipurtargi gorritxuak erakusten eban lantxek. Korura altxau giñan. Atia zabaltziaz batera, parez-pare barrokoko bitxi hori, egurrian landutako bere zutabe, tailla eta filigrana guztixok harro erakusten. Eta guzti honi entxufe ziztrintxo batek emoten dotsa bizixa? pentsau neban. Ixotziori erro-mantikuaua zalakotan neuan, hari organo edar garauari zeo-

zer itxurosuaua tokatzen jakon, baiña tira! Botoi bati sakatu, pare bat erregistro etara eta Emilioren atzamar eta hanka trebiak musikia sortzen hasi zian. Trebia bihar izan ha tek lau bikoitza eta hanketako azpikua harek erakutsitako moldiakin zapaltzeko.

Eta kontzertua hasi zan, esplikaziño arteko musika emanaldixa. Melodien izena ez dakat akorduan, ezagunak zirala bai: triste batzutan, solemne bestietan, bizi-bizi edo aztun, doiñuok elizaren hormen kontra jotera kuan bueltan ekarritxako oihartzunakin jabetzen hasi nintzan. Zoragarri entzuten zan; akustika ederragorik! Organu horren doiñua sarri entzundakua nintzan; sekula bez elizia hutsik euala eta neutzako eskusiboki.

Goizeko 11ak. Batera-batera argitsu ein zan han barruan: eskumako bidrieran eguzki-

xak bete-betian jotzen eban, organuaren egurrezko bitxarte eta zulaunak argiz eta dizdiraz jantzitxa. Erretratu bat etaratzten parau nintzan; Emiliok hori organu zaharra zala esan zostan eta apurtuta euala. Apurtuta? Ha ezustekoa! Zer entzuten neuan ba nik? Orduantxe erreparau notsan han bi organu euazala: haizezkua bata, egurrezko egitura eta tutu guztixok bistan ditzuna eta elektronikua bestia, "Hammond" etxiak Chicagon eindakua.

Haizezkua

Gogora ekarri neban Riki Gonzálezek papeltxo baten idatzitxa emonikua:

"Ermuko Parrokiako organua Bizkaiko zaharrena da, Ziortzakuaren ostetik. Biak Joseph de Echebarria prantziskarra, eibartar organeroak egindakoak dira 1730 urte inguruan eta Orbe Kardina-

lak mezenazgopean. Bizkaiko Lurralde Historikoko onena eta luxuzkuena izan zen sasoi haretan".

"Goikaldean egurrean landutako Sta. Ceciliaren irudi bat dago, musika tresnez inguratuta. Gaur egun altzairu barrokoko gordetzen da, gaztelua deiturikoa eta bere kanpokaldeko tuteria, lenguetak ezezik. Barrukaldeko tutuak (eztainuzkoak gehienak) 1936ko gerra osteko urteetan desagertu ziren." Barrukalde dana hustu jakon eta joteko balixo barik laga zan. 1958. urtian gero, Pio XII hil zan egunian, itxuria mutikuak bialdu zitxuezen kanpaiak jo-tera. Astotu eta "tronpetak be jo bihar jitzuauz!" esanda, organuari txinpartak etara zotsien. Haren lenguetak eta txiliñerak, fiñak izateeran, birrinduta eta ezertarako balixo ez dabela geratu ziran. Kanpokuak gaur egun be baleo-

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

MUGA

KIKLOAK

San Pelayo 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

I AKADEMIA

E ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefona (943) 17 90 38

IZOTZ KONJELATUAK

Ermuko Merkata, 54 eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkata
943 77 05 98

kuak dira. Konpondu leiken? Bai, diru galanta ipiñitxa. Oñ hamar urte ein zan baloraziñuan, orduko pezetatan hamar milloiko gastua aurreikusten zan. Elizia, erakundiak, Udala... bateron bat prest erronka honi aurre eitzeko? Jose M^a Larruskain Ermuan abade izandakuak argira emon bako idazti baten zera dakar jasota: *"Alemaniako organeriako aldizkari batzutan Ermukoa hartzen dute hizpide eta artikulua idatzi zutenak bertatik etorri ziren argazkiak atera, bideoan grabatu eta ohar batzuk hartzeko"*. Alemanian balego hau honezkero martxan ipiñitxa euan, baiña bestia ez zan egongo. Dana be ezin!

Elektromekanikazkua

Sitsik bako egurrezko gaztelupian, kategoriak "Hammond CV" a dago. Tapatxu bat daka ostekaldian; ene, hango kable eta torlojuak ez dake amairik! Inkiñerua bihar izan harek danak bihar dan moduan bere lekuan i-


pintzeko! Egunak beranduago Eibarren topau neban harekin kargutzen dana, Jesus M^a Aguirre, elektromekanikan aditua eta *"Hammond CV"* honen tripa barrenak ondo baiño hobeto ezagutzen eta zaintzen ditxuan. Oñ bost urte bere taillarrera eruan eban barriztatza: kondensadoriak aldatu, kableau barrixa sartu, montau barriro... bere erara ekarri azken fiñian. Barrutik 13.700 pieza osatzen dabe eta eurretako 750 desberdin dira. 91 tonu lortu leikez eta tonuak nahastu ezker, harmoniak. Elektrizidadia dauan bitxartian, ez da gozakaizten, ez da desafinatzen. Soñu argixa etartzeko metalik garestixenak erabilli bihar dira: iridio, paladium, zidarra, kobria, brontzia, platinua... eta horretxek emoten dotsie soñu garrantiarik haundiña. Ermura 1.958an

Javier Mugika donostiarraren eskutik ailegau zan: honek jakin eban Gibraltargo Itsasartian poliziak estraperluan sartutako balixo haundiko organuak konfiskauta zitxuala. Aukera ezin hobia zan eta Ermuko eliziak erosteko bidian ipiñi zan. Orduko denporetan 200.000 pzta. ordaindu ziran, etxebizitza itxuroso batek kostauko leuken beste.

1959an Juanito Urteaga organista maixuak Eibar-ko Astelenan emanaldi bat emon bihar ebala eta jarritxako balidintza bakararra *"Hammond"* batekin jotia-

rena izan zan. Ermukua izan zan aukeratua eta hain zan edarra bere soñua ze, organugiñan ebizen Jose eta Jesus Ibazeta anaiak eta Jose Luis Elorza hiru eibartarrak euren taillarrian haren modukua eitzia pentsau ebela. Ermukua eruan eben bertara eta haren lekuan beste bat ipiñiko eben, harik eta barrixori montau arte. Bardin-bardiñak izatiaz gain, Amañako elizan gordetzen dana eta Ermuko parrokiaren mekanikiaren mai-sulan bi dira. Hurrengo alerako geratu jaku zeresana Mallabiko haizezko tradizionalaren gainian.

Estibalitz González



KUS KUS
kafe antzokia

Ermuko leku aproposena

Komentukua z/g

Eguneroko zerbitzua:
ERMUA, EIBAR, MALLABIA,
ZALDIBAR, BERRIZ, BILBO

Zama guztientzako eskualdeko zerbitzua
ERANDIO GARRAIOAK

Bulegoa: Zeharkalea, 27 • (943) 17 03 14 •
ERMUA

TXALAPARTA
TABERNA

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun

943172665 ERMUA

BARRIO GROS Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*